



ALKIZAKO UDALA

IBILGAILUAREN ERABILERA PARTEKATU ETA KOLEKTIBOA BULTZATZEKO HITZALDIA

Lagun agurgarria:

Klima-aldaketa eta energia aurrezteko erronkei erantzuna eman nahian, mugikortasun gaien testuinguruan, **autoak partekatzeko egitasmoek eskaintzen dituzten onurak** ezagutu eta beraien alde egitea posible den aztertzeko helburuarekin, eskualde mailan burutzen ari den prozesu batean parte-hartzen ari da Alkizako Udala.

Testuinguru honetan, gai honekiko dugun ikuspegia jasotzea ezinbestekoa dela jakinda, ekimen honen berri eman eta iritziak jasotzeko, egingo den hitzaldi - solasaldira gonbidatu nahi zaitugu.

Interesgarri gertatuko zaizun esperantzarekin, zure parte hartzea biziki eskertzen dugu.

- Eguna: 2023ko **otsailak 15, asteazkena**
- Iraupena: 18:00etatik – 20:00etara
- Tokia: Fagus Alkiza

Bertan ikusiko garelakoan, agur bero bat,

Alkizan, 2023ko otsailaren 8an

UDALA